

Ezohiko Batzar Nagusia antolatu da urriaren 10erako

EROSKiko Kontseilu Errektoreak bonuen jaulkipen bat onartzeko eskatuko dio Batzar Nagusiari

- **Kooperatibaren gobernuko organo gorenak Batzar Nagusiari eskatuko dio gehienez 600 M€-ko finantzaketa bat jaulkitzea onartzeko**
- **Kontseilu Errektoreak kupoi bat jaulkitzea proposatuko du finantzaketa iturri bezala erabiltzeko gaur egungo birfinantzaketa akordioan jasota dauden betebeharrei erantzuteko**

Elorrión, 2023ko irailaren 22an.-EROSKI S. Coop-eko Kontseilu Errektoreak kooperatibako Batzar Nagusiari eskatuko dio bonuen jaulkipen bat onartzeko finantzaketa tresna gisa; hala, beste finantzaketa iturri batzuekin batera, egungo finantzaketa akordioan adierazitako betebeharrei erantzun ahal izateko. Horretarako, gaur Ezohiko Batzar Nagusira deitu du, datorren urriaren 10erako. Elorrión izango da, eta kooperatibako organo erabakitzaille gorenari eskatuko dio baimentzeko soilik edukitzaille instituzionalei zuzendutako tresna bat jaulkitzea, gehienez ere 600 milioi eurokoa.

Zorra amortizatzeko konpromisoak betetzea

Batzar Nagusiak baimena ematen badu proposatutako finantzaketa tresnak jaulkitzeko, edozein konbinaziotan dela ere, EROSKIk zorra amortizatzeko hurrengo konpromisoak betetzeko erabiliko ditu eskuratutako baliabideak. Konpromiso horiek aurreikusten dute bi epemuga ezartzea EROSKIri zorra amortizatzeko: 2024ko uztailaren 31rako 503 milioi euro amortizatu beharko ditu, eta 2027ko uztailaren 31rako, 200 milioi euro.

Azken urteetan nabarmen txikitu da EROSKIren zorra; horregatik, EROSKIk modua izan du palanka-efektu finantzarioa murrizteko. Zehazki, 2022ko ekitaldian, EROSKIk 44 milioi eurotan gutxitu zuen zorra, eta 858 milioi eurotan geratu zen 2023ko lehen seihilekoaren amaieran. Horiek hala, 2009tik 2.514 milioi eurotan gutxitu du zorra. Jaitsiera honek zor guztiarekiko %75eko murrizketa ekarri du.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI - PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

Joana G. Landazabal

Eduarne Izquierdo

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)